

# MENDIA TA MENDI-ZALETASUNA

Mendizale naizelarik, gure mendi-zaletasunatzaz zerbait esan nai nuke.

Mendia zer da? Mendia, zelaia, errekatxoa, Jaunak eman dizkigun gauzetatik ederrenetakoak dira. Ta mendi, zelai ta errekatxo oiek guretzat egiñak dira.

Bainan jende askok ez du ulertzen mendizaletasun ori, batez ere euskaldunen artean. Orregatik nai nuke gai ontaz zerbait idatzi.

Jende askoren galdera au da: Zer billatu ta zer arkitzen dute mendi gaillurrean?

Eta ona emen guk billatzen duguna: Ikasi. Ezagutu gure Euskal-herria.

Eta arkitzen duguna: laguntasuna, pakea, askatasuna.

Mendi goruntz goazela, jende askorekin topatzen gera. Gure herritarrekin edo beste euskal probintxikoekin. Askotan, ezagutzen ez ditugun jendeak dira... baina, an, mendian, guztiok lagun, guztiok anai, eta bereala elkarrekin izketan asten gera.

Eta ori da ederra. Mendian arkitzen geranean, ezber-

dintasunak alde batera utzita, guztiok bat... Ori da laguntasuna!

Aurrera jarraitzen dugu. Askotan izerdi patsetan, bainan beti pozik mendi gaillurrean egoteagatik. Irixten geranean, an arkitzen dugu pake ta askatasun ori. Mendi gaillurrean dana ederra bai da...!

Len esaten nuan bezela, jendeak galdera auk egiten dizkigute. Esan ere bai: orrenbeste izerdi ta neke... merezi al du berriro jexteko!!

Jendeak ez daki mendi gainean arkitzen dugun edertasuna.

Jendeak ez daki zenbaterañoiko edertasuna dagon mendian.

Mendi gaillurrean, dana pakea ta zoriontasuna da.

Euskal-herriko mendizaleok, jarrai dezagun beti ontan. Aurrera!!!

NEKANE  
(G. M. U.)

